


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/05/8) Hurrengo saioa: 2018/05/25	Isidro deunaren bazkaria (Maiatzak 15)	Herritarrak informatu eta animatu Itsasoko Ostatuan zein Alegiko Elkartean izango diren bazkaritara.	Deialdia komunikazio batzordean burutu eta banatu
	Erretaularen inguruko hitzaldia (Maiatzak 15)	Herritarrak gonbidatu eta ustez beharrezko kapazitatea izango duen autobusa kontratatu.	Goierrialdea enpresari aurrekontua eskatu
	Seat 600en kontzentrazioa (Maiatzak 27)	Autoak aparkatzen/organizatzen laguntzeko jendearen beharra izango dela pentsatu da. Karpa muntatzeko ere (eguraldiaren arabera zehaztuko da eguna) boluntarioen premia izango da.	Banatuko den deialdian jakinarazi jendeak parte hartzeko aukera izan dezan
	Itsasokoen (Nafarroa) bisita (Maiatzak 27)	Egunaren programa posible bat garatu da. Herritarroi deialdia bidaliko zaie parte hartzeko ibilaldian, dantza egiten, bazkaltzen...	Beraiei bidali proposamena gustatzen zaien jakin eta zenbat datozen

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/ 05/14) Hurrengo saioa: 2018/05/29)	Euskaraldia	Azaldu diren kide berriein orain arte garatutakoaren errepaso bat egin da. Euskaraldia ekimenak Itsaso bezalako herri batean izan dezakeen egituraz hitz egin da eta prestatzaileen formazioan parte hartzeko kideen taldea osatu da (Pilare, Olatz, Asier S. eta Anttoni)	Ekainaren 6ko EHUko prestatzaileen formazioan parte hartu eta bertan jasotako informazioa taldean konpartitu.
	Nafarroako Itsasoarren bisita	Etxeetara bidali beharreko jakinarazpena osatu da: zehaztutako egitarauaz gain, boluntarioen beharra eta bazkaltzeko izen ematearen garrantzia aipatuz. Menua eta honen kostua jartzea ere egoki ikusi da. Handik datorren autobusarentzat erreserbatutako gunea jartzea pentsatu da eta mendirako 2 ibilgailu prest izatea ere aurreikusitua da (Mandubitik Itsasora joateko)	Boluntarioen presentzia ziurtatu.
	Sueskola-koen formazioa	Gure eskaera ez dago beraien zereginetan aurreikusita baina lan ildo berri hau lantzeko aukera Patronatura aurkeztuko dute eta hartutako erabakien berri emango	Beraien erantzuna herritarrekin partekatu.



		digute.	
	Azpiegitura batzordearen deia	Etxebizitzaren Ikuskapen Teknikoaren gaiak duen garrantzia ikusita azpiegitura eta ingurumen batzordearen deia egin zen larunbat honetarako. Beste gairen bat jorrazteko aukera ere izango dugu.	Ikus azpiegitura batzordearen akta

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/05/19) Hurrengo saioa: 2018/05/30)	EIT/ ITE	Miriam Otamendi arkitektoak adierazi zuen teknikoek zer behatzen duten ikuskapena egiterakoan: etxebizitzaren estalkia (materiala, soportea, itukinak,...), egitura (zimendu, pitzadurak,...), fatxada (materiala, hezetasuna, kondentsazioa, ...) eta ur hornikuntza eta saneamendu sarea. Bisualki egiten den ikuskapena da eta 1etik 5rako kalifikazioa jarriko zaie eta behar den kasuetan eskatutako hobekuntzak egin beharko dira. Erabilera nagusia etxebizitza duten eraikinek pasatu beharko dute derrigorrez eta arkitekto zein aparejadoreak egin dezake. Ikuskapenaren kontrola Udalaren eskumena da baina oraindik ez da dekretu definitiboa atera. Edonola ere, Udalaren gomendioa ikuskapena egitea da.	Dekretua argitaratzen denean dioenaren berri herritarrei zabalduko zaie baina bitartean etxe bakoitzak egin beharrik duen www.euskoregite.com gunean ikus liteke. Zalantzarik izanez gero deitu udaletxera.
	Alegiako parkea	Fase honi amaiera emateko parkeko zorua eta jolas ekipamendua aukeratu dira eta hilabeteko epean bukatuta izatea espero da. Guztira 100.000€ inguruko aurrekontua izan du eta Leader programak 42.000€tako diru-laguntza eman du.	Bigarren fasean, zuhaizpean helduentzako ariketak egiteko egiturak jarriko dira
	Udaletxea egokitzeko proiektua	Udaletxeko obraren lehen zatia egiten hasteko (sarrera irisgarria bihurtu, sarrera nagusiko distribuzioa moldatu eta ganbarara doan eskailera berritu), planoak erakutsi ziren. Obraren finantziazioaren zati bat Leader programaren bidez egiteko asmoa da. Aurrekontu osoa, BEZa barne 90.666€ da	Laster konkurtsora aterako da enpresak aurkez daitezten
	Hilerriko iturria	Dagoeneko hilerriko iturria bukatuta dago.	Inguruko pareta margotzea falta zaio.